


Ezpalak

JON TORNER

Euskarazko Wikipedia: 40.000 artikuluak helburu



EUSKARAZKO WIKIPEDIAK 40.000 artikulu bildu nahi ditu uztailearen 31 baino lehen. "Azken hilabete erdian 38.000-39.000 kopuru horretan geldi antzean aurkitzen garelako irudipenean nago. Ea honela muga data bat jarri ezkeron animatu eta denok batera artikuluak sortuz eta sortuz 40.000 artikuluaren muga esanguratsu eta nabarmen hori lehen bai lehen igarotzen dugun", idatzi du webgunean Wikipediako kide batek. [<http://eu.wikipedia.org>]

Disko uzta berria

EUREKA HOT 4 taldeak funk, soul, punk eta rock-and-roll estiloak nahastu ditu *World Champions* diskoan. *Sosegua* du izena Garikoitz Mendizabal txistulariaren bakar-kako bigarren lanak. Disko pertsonala egin du Mendizabalek, batetik; baina bestetik, txistuari buruzko topiko batzuk ezbaian jartzeko asmoa ere badu lanak. Juan Carlos Irizarrek, bere aldetik, The Beatles taldea omendu du *The Beatles eta ni* diskoan.


Bestalde, 1970eko hamarkadan egin ohi zuen moduan, gitarra hartu eta taula gainera igoko da berriro Jon Enbeita bertsolaria. Aurki hasiko da bakarlarri gisa plazaratu duen diskoa aurkezten: *Hainbeste, bain gitxi* (Lanku). Ekoizpen lanetan Rafa Rueda aritu da, eta Arkaitz Miner, Jesus Aranburu, Ekain Elorza eta Itsaso Etxebeste musikariek ere parte hartu dute diskoan.

Mikel Laboa hil aurretik hasitako proiektua kalean da: *Mikel Laboa (1934-2008)* dokumentala. Mari Sol Bastida alargunak zuzendu du eta kontzertuen irudiez, afizez eta musikariari eginiko erretratuez gain, elkarrizketa ugari ere bildu dituzte DVDan, hala nola, Koldobika Jauregi, Iñaki Salvador, Josetxo Silguero, Lluís Llach eta Ruper Ordorikari egindakoak. Mikel Laboak berak gidatzen du ikuslea dokumentalean –bere bizitzan– zehar.

Asian Dub Foundation, Ama Say, Echo & The Bunnymen, Jane's Addiction, Depeche Mode eta Placebo taldeek joko dute, besteak beste, Bilbao BBK Live jaialdian, uztailearen 9tik 11ra bitartean. Hiru egunetarako bonoak 136 eurotan eskuratu daitezke, eta egun bakar batekoak 55 eurotan. [www.bilbaobbklive.com]

Iñigo Alberdik jarraituko du Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari izaten, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazi duenez. 2006an hartu zuen kargua Soraluzekoak.

● **Josu Landa Susa argitaletxeko kideak HUHEZIn eskainitako hitzaldian esandakoak jaso ditu Berriak:** «Noraino baliatu ditugu Internetek eskaintzen dizkigun baliabideak? (...) Non dago literatur produkzioaren %99? (...) Kontserbazionismoak kultur ondarearen biziraupena bultzatu beharrean bahiketa bultzatzen du (...) Interneten baliabideak ez ditugu ondo erabili (...) Beti berandu iritsi gara agerpen kulturetara, berandu liburugintzara, telebistara, zinemara... Diru falta eta merkatu txikia edukitzea jarri izan dira horren arrazoitzat, baina horiek aitzakiak direla erakutsi du Internetek».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Abarak

MIKEL GARCIA

Thriller onenen antzera

Coraline. Zuzendaria: Henry Selick.
Animazioa. 101 minutu. AEB, 2009.

HAINBATEK HALA USTE BADU ERE, filma ez da Tim Burtonena. Baina izan zitekeen. Azken finean, animaziozko pelikula izan arren iluna da *Coraline*, beldurgarria pasarte batzuetan, gordina behar denetan, fantasia irudi bortitzekin uztartzeko konplexurik gabea. Tim Burtonek, ordea, beste zeregin batzuetan du burua: *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* ari da errodutzen –Johnny Depp eta Helena Bonham Carter aktore dituela, noski–; *Coralinen* antza duen istorioa, bide batez. *Gabon aurreko amesgaiztoa* lanean elkarrekin aritu ziren Selick eta Burton: zuzendari lanetan Selick, ekoizle Burton. Oraingotan, apopiloak bakarka egin du jauzi, nahiz eta nagusiaren eragina ezin izan duen gainetik kendu. Eta gu pozik, *Beetlejuice*, *Edward Scissorhands*, *Sleepy Hollow* eta *Big Fish* filmen autorearen kutsua duen guztia atsegin dugulako.



Thriller onenen antzera, pelikula honetan ere gauzak ez dira diruditena, eta erritmo bizkorra darie planoetara, ikuslearengan tentsioa sortzeraino. Hau ez baita haurrentzako filma. Edo agian bai, baina helduentzako ere bada, dudarik gabe. Coraline Jones protagonistaren eskutik, mundu paralelo bat ezagutuko dugu; dena (beldurgarriki) berdina da, baina hobetuta... harrapakina liluratzeko zepoa baino ez dela konturatzeko berandu den arte. Tartean, bigarren mailako pertsonaia jenialak, giro misteriozua, abentura eta fantasia asko; hori dena argazkien hurrenkeran oinarritzen den stop-motion teknika hiru dimentsiotan aplikatuz (lehen aldiz zinematan).

Apopiloak nagusia gainditu duenik ez dugu esango, Tim Burtonen jarraitzaile handiak baikara, baina izen propioa merezi du Henry Selick-ek, animazioaren munduan.


donostiakultura.com



	<p>Uztailak 9-12 MATÉ A UN TIPO, Bambalinas Asesinas Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (11. bikoitza: 22:30)</p> <p>Uztailak 10-12 LUISA FERNANDA, Sasibill Antzerkia • Victoria Eugenia • 10. 11. 20:00. 12. 19:00</p> <p>Uztailak 16-19 EL MÉDICO A PALOS, Iniciativas Teatrales Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (17. 18. bikoitza: 22:30)</p> <p>Uztailak 22 DAVE DOUGLAS & BRASS ECSTASY Musika • 44. Heineken Jazzaldia • Victoria Eugenia • 18:30</p> <p>Uztailak 23 ANIMAL COLLECTIVE Musika • 44. Heineken Jazzaldia • Kursaal • 24:00</p> <p>Uztailak 24 JOÃO GILBERTO Musika • 44. Heineken Jazzaldia • Kursaal • 24:00</p> <p>Uztailak 25 ABDULLAH IBRAHIM & EKAYA Musika • 44. Heineken Jazzaldia • Victoria Eugenia • 24:00</p> <p>Uztailak 26 JAMES TAYLOR & BAND Musika • 44. Heineken Jazzaldia • Kursaal • 18:30</p> <p>Uztailak 26 JAMIE CULLUM + MÉLISSA LAVEAUX Musika • 44. Heineken Jazzaldia • Trinitate plaza • 21:00</p> <p>Uztailak-abuztuak 28-2 MI PRIMERA VEZ, El Reló Producciones Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (30, 31, 1. bikoitza: 22:30)</p> <p>Abuztuak 5-9 CALCETINES OPUS124, José Sancho + Joaquín Kremel Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00 (8. bikoitza: 23:30)</p> <p>Abuztuak 12-16 ARTE, Iñaki Miramón, Alex O' Doherty, Luis Merlo Antzerkia • Victoria Eugenia • 20:00 (13, 14, 15. bikoitza: 23:30)</p>
---	---